

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DONEMILIAGAKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea 2020ko aurrekontuari

Udalbatzak, 2019ko abenduaren 26ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea udalaren 2020ko ekitaldiko aurrekontu orokorrari.

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espediente hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Erdoña, 2019ko abenduaren 27a

*Alkatea*

**ERIKA LETAMENDI HURTADO**